Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko urtarrilaren 22a, asteazkena — 13 — Miércoles, a 22 de enero de 2025

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## TOLOSAKO UDALA

*Iragarkia*

Tolosako Udalbatzak, bi mila eta hogeita lauko urriaren hogeita hamaikan, egindako Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, honen berri eman zen:

> *Tolosako HAPOko «20.1. Amarotz Paper-fabrika» hirigintza azpieremuko 2.2 lursailean bizitegi errentamendu iraunkorreko araubide orokorrean babes publikoko etxebizitzen sustapena ahalbidetzeko, «Vivienda de Suelo de Euskadi S.A. - Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EA» sozietatearekin lankidetza-hitzarmenaren behin betiko onespena.*

Bi mila eta hogeita lauko uztailaren hogeita lauan, Udalbatzak, Ohiko Osoko bilkuran, besteak beste, Hasierako onespena ematea erabaki zuen Tolosako HAPOko «20.1. Amarotz Paperfabrika» hirigintza azpieremuko 2.2 lursailean bizitegi errentamendu iraunkorreko araubide orokorrean laurogeita bat babes publikoko etxebizitzen sustapena ahalbidetzeko, «Vivienda de Suelo de Euskadi S.A. - Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EA» sozietatearekin lankidetza hitzarmenari.

Hitzarmenaren klausulak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren 2024ko abuztuaren 30ean, 167. zenbakian.

Udalbatzak bi mila eta hogeita lauko uztailaren hogeita lauan, Ohiko Osoko Bilkuran, hartutako erabakiaren zazpigarren puntuan jasotakoa «xedatzea ulertuko dela jendaurrekoan alegaziorik aurkeztu ezean eta, beti ere, 7/2024 kredituak aldatzeko espedientea behin betiko onartuta, hitzarmena behin betikoz onartu dela» betetzen denez, ulertzen da behin betikoz onartu dela Tolosako HAPOko «20.1. Amarotz Paper-Fabrika» hirigintza azpieremuko 2.2 lursailean bizitegi errentamendu iraunkorreko araubide orokorrean babes publikoko etxebizitzen sustapena ahalbidetzeko, «Vivienda y Suelo de Euskadi S.A. - Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EA» sozietatearekin lankidetza hitzarmena.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtso hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkez dezake Udalbatzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsoaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertzeko errekurtsoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa

## AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

*Anuncio*

En Sesión Ordinaria del Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, celebrada el día treinta y uno de octubre de dos mil veinticuatro, se dio cuenta, entre otros, de lo siguiente:

> *Aprobación definitiva del convenio de colaboración con la sociedad «Vivienda de Suelo de Euskadi S.A. - Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EA» para posibilitar la promoción de vivienda de protección pública en el régimen general de arrendamiento residencial permanente en la parcela 2.2 del subámbito urbanístico «20.1 Papelera Amarotz» del PGOU de Tolosa.*

El pleno del Ayuntamiento de Tolosa, en sesión ordinaria celebrada el veinticuatro de julio del dos mil veinticuatro, acordó, entre otros, aprobar inicialmente el convenio de colaboración con la sociedad «Vivienda de Suelo de Euskadi S.A. - Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EA», para posibilitar la promoción de ochenta y una viviendas de protección pública de régimen general destinada a arrendamiento residencial de forma permanente en la parcela 2.2 del subámbito urbanístico «20.1 Papelera Amarotz».

Las cláusulas del convenio fueron publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 167, de 30 de agosto de 2024.

Dado que se da cumplimiento a lo recogido en el punto séptimo del acuerdo adoptado por el Pleno de la Corporación en Sesión Ordinaria de fecha veinticuatro de julio de dos mil veinticuatro, en el sentido de que «se entenderá que el convenio ha sido aprobado definitivamente si no se han presentado alegaciones en la exposición al público y, en todo caso, con la aprobación definitiva del expediente de modificación de créditos 7/2024», se entiende aprobado definitivamente el Convenio de colaboración con la Sociedad «Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. - Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, EA» para posibilitar la promoción de vivienda de protección pública en régimen general en arrendamiento residencial permanente en la parcela 2.2 del subámbito urbanístico «20.1 Papelera Amarotz.»

El presente acuerdo es firme y pone fin a la vía administrativa. Contra el mismo podrán interponerse los siguientes recursos:

Con anterioridad al inicio de la vía judicial, la persona interesada podrá interponer recurso de reposición ante el Pleno, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la recepción de la presente notificación. Todo ello, conforme a los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

No obstante, en lugar del recurso de reposición, o en el caso de interponerse contra la resolución del recurso, podrá presentar directamente recurso contencioso-administrativo en un plazo de dos meses desde el día siguiente a la recepción de la presente notificación. El recurso se presentará ante el Juzgado Contencioso-Administrativo de San Sebastián.

Asimismo, si no hubiera resolución expresa, tanto para poner fin al procedimiento como para dar respuesta al recurso de reposición, el/la interesado/a podrá interponer en cualquier mo-

EK\CV GAO-I-2025-00058

aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtso hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Tolosa, 2025eko urtarrilaren 4a.—Kristina Pelaez Errazkin, zinegotzi delegatua. (58)

mento recurso contencioso-administrativo. Dicho recurso deberá interponerse ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián.

Tolosa, a 4 de enero de 2025.—La concejala delegada, Kristina Pelaez Errazkin. (58)

EK\CV GAO-I-2025-00058